

## Galdera

«— Bihar batera joango gara? — Bai, zeuk eta biok ordu berean bukatuko dugu. — Ados. **Neu txofer** / \**Neu, txofer.*»  
Elkarrizketa honetako azken esaldian komarik jarri behar da?

## Erantzuna

'**Neu txofer**' idatzi behar da.

**1/** Azpian, esaldi hau edo dago:

«Neu izango naiz txofer». > aditz-isiltzea > «Neu Ø txofer».

Batean zein bestean, 'neu' izenordaina da galdegaia, eta ez da komarik idazten galdegaiaren eta aditzaren artean. Orobat, intonazioaren etenik ez da entzuten.

**1.1/** EIMA Estilo-liburua – [Puntuazioa](#) (26. or.)

2. 2. 1. *Komarik gabe idaztekoak* – c. **Galdegaiaren eta aditzaren artean ez da komarik idazten.**

**1.2/** BERRIA *Estilo-liburua* idazkuntza – [idazkuntza >> Puntuazioa >> Koma >> Noiz erabiltzen den](#)

[...] Hala, galdegaiaren atzean ez da komarik jartzen, **nahiz eta aditza isildua egon.**

« Janowsky poloniarrek zuzenduko du orkestra, eta Alfarok abesbatza».

**2/** Ikus dezagun, bide batez, '[txofer](#)' hitza Euskaltzaindiaren Hiztegian:

iz. *Heg. Herr.* Automobil, autobus, kamioi eta kideko ibilgailuetako gidaria. Ik. [gidari](#) **2.** *Atzerako ispiluari begira hitz egin zion autobuseko txoferrak. Txofer lanetan aritu zen.*

Beraz, izena, Hegoaldea, herri-mailakoa (iz. *Heg. Herr.*). Bitxia bada ere, bestalde, galizismoa izanik (fr '[chauffeur](#)'), Hegoaldekotzat jotzen du Akademiak. Sinonimoak: '[gidari](#)' eta '[auto-gidari](#)'.